



**Espediente zk./Nº Expediente:** 2021IGOB0007

**Gaia/Asunto:** 2021/07/07 Ezohiko Tokiko Gobernu Batzarra/Junta de Gobierno Local Extraordinaria 2021/07/07

**Tokiko Gobernu Batzarra 2021eko uztailaren 07an eginiko ezohiko bilkura telematikoari dagokion akta.**

2021eko uztailaren 7ko 09:15ak zirela, modu telematikoan (martxoaren 31ko 11/2020 EDLk 7/1985 Legeko 46. artikuluan sortutako 3. atal berriak xedatutakoaren baitan), lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (EH Bildu Orereta/Errenteria), ondoko zinegotziak elkartu dira, guztiak espainiar lurraldean kokatuak:

**EH Bildu Orereta/Errenteria**

- Itziar Ostolaza Galdos
- Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi
- Bernar LEMOS TABERNA
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

**Elkarrekin Errenteria**

- José Manuel Ferradás Freijo

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du, Maite Gartzia Ontiverosek (Elkarrekin Errenteria).

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore Sarasola Otermin Idazkaria.

**1. 2021eko ekainaren 15ean eginiko ohiko bilkura telematikoari dagokion aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada. (2021IGOB0006)**

**Acta de la sesión telemática extraordinaria de Junta de Gobierno Local celebrada el día 07 de julio de 2021.**

Siendo las 09:15 horas del día 7 de julio de 2021, en sesión telemática (de acuerdo con lo dispuesto en el nuevo apartado 3 del art. 46 de la Ley 7/1985 introducido por la Disposición Final 2ª del Real Decreto Ley 11/ 2020 de 31 de marzo), se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de La alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (EH Bildu Orereta/ Errenteria), las y los siguientes Concejales y Concejales radicados en territorio español:

**EH Bildu Orereta/Errenteria**

- Itziar Ostolaza Galdos
- Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi
- Bernar Lemos Taberna
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

**Elkarrekin Errenteria**

- José Manuel Ferradás Freijo

No asiste excusando su inasistencia, Maite Gartzia Ontiveros (Elkarrekin Errenteria).

Asiste y da fe del Acto La Secretaria Nagore Sarasola Otermin.

**1. Lectura y aprobación en su caso del Acta correspondiente a la Sesión Ordinaria Telemática del 15 de junio de 2021. (2021IGOB0006)**



Oharririk gabe onartu da.

Se aprueba sin observación alguna.

**2. Proposamena: LANKIDETZA HITZARMENA, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa Departamentuaren eta Errenteriako Udalaren artean, 2021ean Errenteriako Beraun kirolgunean egingo diren inbertsio jakin batzuk diruz laguntzeko. (2021HPOL0015).**

**2. Propuesta: aprobar el CONVENIO DE COOPERACIÓN entre el Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Errenteria, para subvencionar la ejecución durante el año 2021 de determinadas inversiones en las instalaciones deportivas de Beraun de Errenteria. (2021HPOL0015).**

Diputatuen Kontseiluaren 2019ko azarcaren 12ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Kudeaketa Plan Estrategikoa onetsi zen. Bertako 32. helburua hau da: Pasaialdea osorik berroneratzeko prozesua modu erabakigarrian bultzatzea.

El Plan Estratégico de Gestión 2020-2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa, fue aprobado por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 12 de noviembre de 2019. Siendo el objetivo 32: impulsar decididamente el proceso de regeneración integral de Pasaialdea.

2021eko ekainaren 15ean Gipuzkoako Foru Aldundiko mugikortasun eta lurralde antolaketa diputadu andreak Foru Agindua eman du, Errenteriako Udalaren alde 140.000.-euroko dirulaguntza zuzena onartuz, "D"letraz identifikatutako ondorengo ekintzak zati batean finantziatu asmoz: Beraungo kirol-gunea birgaitu.

Con fecha 15 de junio de 2021, la Diputada Foral del Dpto. de movilidad y ordenación del territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa ha dictado Orden Foral, aprobando la concesión de la subvención directa por importe de 140.000.-euros a favor del Ayuntamiento de Errenteria para financiar la ejecución de inversiones de renovación de la zona deportiva de Beraun.

Zehazki hauek izango dira egingo diren obrak:

En concreto, estas son las obras a ejecutar:

1.-Belar artifiziala berritu.

1.- Renovación de hierba artificial.

Aukera baliatuko da futbolzelaia mendebalderantz eramateko eta ekialdean 50 x 27 m-ko beste futbol-zelai bat ateratzeko.

Se aprovecha para desplazar el campo de fútbol hacia el Oeste y conseguir un nuevo campo de 50 x 27 metros en la parte Este.

2.-Atletismo-pistako zoladura berritu.

2.-Renovación del pavimento pista atletismo.

Zoladura sintetiko gorria jarriko da. Aurrez, egoera txarrean dauden eremuak fresatuko dira eta asfaltatu egingo da. Oinarri sintetikoaren geruza berria emandakoan, akabera-geruza jarriko da.

Se va a renovar todo pavimento sintético color rojo. Previamente se levantará el pavimento sintético existente se fresarán las zonas en mal estado y se asfaltarán. Una vez extendida una nueva capa base sintética se procederá a la aplicación de la capa de acabado.



3.-Ureztatze instalazioa berritu.

Ureztatze instalazioa berrituko da. Horretarako, lurretik ateratzen diren aspertsoreen sistema jarriko da eta hodia berrituko da.

4.- Kirol-ekipamendu guztia berritu, hala futbolekoa nola atletismokoa.

Foru Agindu horretan onartu da Errenteriako Udalarekin lankidetzeta hitzarmena sinatzea.

2021eko ekainaren 30ean txosten juridiko-teknikoa eman dute hirigintza aholkulari juridiko andreak eta udal arkitekto jaunak.

Udal kontuhartzaileari berri eman zaio.

3.- Renovación de la instalación de riego.

Se renueva la instalación de riego, con un sistema de aspersores emergentes y la renovación de la tubería.

4.-Renovación de todo el equipamiento deportivo, tanto del campo de fútbol como de la pista de atletismo.

En dicha Orden Foral se aprueba la firma del presente convenio con el Ayuntamiento de Errenteria.

El día 30 de junio de 2021 emiten informe jurídico-técnico la asesora jurídica de urbanismo y el arquitecto municipal.

Se ha comunicado a la interventora.

**LEGEDI EZARGARRIA**

-Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena.

-Urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.

-Apirilaren 7ko 2/2016 Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea.

-Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

-Abenduaren 9ko 19/2013 Legea, gardentasuna, informazio publikorako sarbidea eta gobernu onari buruzkoa (8.1.b) artikulua).

- Azaroaren 17ko 38/2003 dirulaguntzen lege orokorra.

**LEGISLACION APLICABLE**

-Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas

-Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

-Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

-Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

-Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno (art. 8.1.b).

- ley 38/2003 de 17 de noviembre general de subvenciones.

**ZUZENBIDE OINARRIAK**

**Hitzamenaren objektua eta helburuak:**

**FUNDAMENTOS DE DERECHO**

**Objeto y objetivos del Convenio:**



Hitzarmen honen objektua eta helburuak ondorengoak dira: Gipuzkoako Foru Aldundiko mugikortasun eta lurralde departamentua Erreterriako Udalaren alde 140.000.-euroko dirulaguntza zuzena ematea Beraungo kirol-gunea birgaitzearen lanak zati batean finantziatu asmoz.

El objeto y los fines del presente Convenio son los siguientes: Concesión de una subvención directa del Departamento de Movilidad y Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa a favor del Ayuntamiento de Erreterria por importe de 140.000 euros para financiar parcialmente las obras de rehabilitación del complejo deportivo de Beraun.

Zehazki hauek izango dira egingo diren obrak:

En concreto, las obras a realizar serán las siguientes:

- 1.-Belar artifiziala berritu.
- 2.-Atletismo-pistako zoladura berritu.
- 3.-Ureztatze sistema berritu.
- 4.- Kirol-ekipamendu guztia berritu, hala futbolekoa nola atletismokoa.

- 1.-Renovar la hierba artificial.
- 2.-Renovación del pavimento de la pista de atletismo.
- 3.-Renovación del sistema de riego.
- 4.- Renovar todo el equipamiento deportivo, tanto de fútbol como de atletismo.

**Gipuzkoako Foru Aldundiko mugikortasun eta lurralde antolaketa departamentuaren konpromisoak:**

**Compromisos del departamento de movilidad y ordenación del territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa:**

a) Baimentzea eta xedatzea, Erreterriako Udalaren alde, ehun eta laurogei mila euroko (140.000,00 €) zenbatekoa, aurrekontuko 1 0520.200.761.01.01 2021partidaren kargura .

a) Autorizar y disponer a favor del Ayuntamiento de Erreterria la cantidad de ciento cuarenta mil euros (140.000,00 €) con cargo a la partida presupuestaria 1 0520.200.761.01.01 2021.

Diruz laguntzekoak izango dira inbertsioak gauzatzearekin zerikusia duten laguntza teknikoko jarduerak (proiektuak idaztea, lanak zuzentzea, segurtasun eta osasun arloak koordinatzea, etab.)

Se incluyen como conceptos subvencionables las actividades de asistencia técnica relacionadas con la ejecución de las inversiones (redacción de proyectos, dirección de las obras, coordinación de la seguridad y salud, etc.).

b) Inbertsioak gauzatu izana egiaztatzen duten obra ziuertagiriaren, fakturen edo haien ordezkio dokumentuen kopia jaso ondoren ordaintzea.

b) Realizar el pago previa recepción de las correspondientes certificaciones de obra, facturas o documentos que las sustituyan.

**Erreterriako Udalaren konpromisoak:**

**Compromisos del Ayuntamiento de Erreterria:** el

Labur labur hauek dira Erreterriako Udalak hartutako konpromisoak:

Ayuntamiento de Erreterria asume los siguientes compromisos resumidamente expuestos:

a) 2021ko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era bitartean

a) Las inversiones se ejecutarán entre el 1 de enero



gauzatu beharko ditu inbertsioak.

y el 30 de noviembre de 2021.

b) Egindako gastua zuritu beharko du 2021ko abenduaren 1a baino lehen.

b) La realización del gasto deberá justificarse con anterioridad al 1 de diciembre de 2021.

c) Inbertsioak gauzatu izana egiaztatzen duten fakturen eta ziurtagirien kopia bidali behar du.

c) Deberá remitir las certificaciones de obra y facturas que acrediten la ejecución material las inversiones.

d) Inbertsio bat gauzatzeko proiektu bat behar denean, proiektuaren ale bana igorri, Udalak behin betiko onartu eta gero.

d) Cuando para ejecutar una inversión sea necesaria la existencia de un proyecto deberá remitir un ejemplar del mismo, una vez aprobado definitivamente.

e) Foru Aldundiari jakinaraztea hitzarmen honen xede berdinarekin beste dirulaguntzarik jaso duen, beste administrazio publikoren edo nazio edo nazioarteko entitate publiko nahiz pribaturen aldetik.

e) Comunicar la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad objeto del presente convenio, otorgadas por otras Administraciones Públicas o por entidades públicas o privadas, nacionales o internacionales.

f) Inbertsioak gauzatzeko epean, Errenteriako Udalak kartel bat jarri eta mantendu beharko du, euskaraz eta gazteleraz idatzia, jarduerak Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso duela iragartzen duena.

f) Colocar y conservar un cartel durante el periodo de ejecución de las inversiones, escrito en euskera y castellano, anunciador de que la actuación se halla subvencionada por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

#### **Hitzarmenaren iraupena eta indarraldia:**

Hitzarmen hau indarrean sartuko da sinatu eta hurrengo egunetik aurrera, eta 2021eko abenduak 31 arteko iraupena izango du.

Hitzarmenaren hamaikagarren klausulan jaso dira hitzarmena desagitearen arrazoiak.

#### **Finantziario gastuak:**

Lankidetzaz hitzarmen zehatz hau izenpetzeak ez dio inolako gastu gehigarrikerik eragingo Errenteriako Udalari. Nahiz eta, Beraungo kirolgunearen obrak exekuzioa gauzatzea Udalaren ardura den.

#### **Duración y vigencia del Convenio:**

El presente Convenio entrará en vigor a partir del día siguiente de su firma y tendrá una duración de hasta el 31 de diciembre de 2021.

En la cláusula undécima se recogen las causas de invalidez del Convenio.

#### **Gastos de financiación:**

La firma de este concreto Convenio de Colaboración no supone ningún coste añadido para el Ayuntamiento de Errenteria. Sin embargo, es responsabilidad del Ayuntamiento la ejecución de las obras de renovación de las instalaciones deportivas de Beraun.



Hirigintza delegatuak egindako erabaki-proposamena eta hirigintzako aholkulari juridikoak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatezaz eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau, aho batez,

Vista la propuesta de acuerdo del delegado de urbanismo y la conformidad dada por la asesora jurídica de urbanismo a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

### ERABAKI DU

1.-**Onartzea LANKIDETZA HITZARMENA**, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa Departamentuaren eta Erreterriako Udalaren artean, **2021ean Erreterriako Beraun kirolgunean egingo diren inbertsio jakin batzuk 140.000.-euroko zenbatekoan finantzatzeko edo diruz laguntzeko. Hitzarmenaren testua jarraian atxikitu da.**

2.- Hitzarmenaren zortzigarren klausularen arabera Jarraipen Batzordeko ordezkariak **izendatzea**, Hirigintzako Delegatua den Eneko del Amo Jiménez eta Ramón Ruiz de Mendoza udal arkitektoa izango direlarik.

3.-Alkate-Lehendakari andrea **ahalduntzea** Udalaren ordezkari gisa, lankidetzaz hitzarmena hau sinatu dezan, eta era berean ere, hainbat ekintza egiteko edota erabaki hau gauzatzeko behar diren hainbat dokumentu publiko edo pribatu sinatzeko.

### **3. Proposamena: Udalaren Larrialdietarako Plana onarpena. (2021UPOL0001)**

Erreterriako udalerrriak Larrialdietarako Udal Plana du, 1999 urtekoa.

Antzinakoa denez eta igarotako urteen ondorioz,

### ACUERDA

1º.- **Aprobar el CONVENIO DE COOPERACIÓN** entre el Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Erreterria, **para financiar o subvencionar por importe de 140.000.-euros la ejecución durante el año 2021 de determinadas inversiones en las instalaciones deportivas de Beraun de Erreterria. El texto del convenio se adjunta seguidamente.**

2º.- **Nombrar** como representantes en la Comisión de Seguimiento prevista en la cláusula octava del Convenio al Delegado de Urbanismo, Eneko del Amo Jiménez, y al arquitecto municipal, Ramón Ruiz de Mendoza.

3º.- **Facultar** a la Alcaldesa-Presidenta de la Corporación, para que, en representación del Ayuntamiento, suscriba el presente Convenio de Colaboración, así como realizar los actos y otorgar cuantos documentos públicos o privados sean necesarios para dar efectividad al presente acuerdo.

### **3. Propuesta: aprobación del Plan de Emergencia Municipal. (2021UPOL0001)**

El municipio de Erreterria cuenta con un Plan de Emergencia Municipal que data del año 1999.

Debido a su antigüedad y fruto de los años



aldaketa ugari egin dira udalerrian, eta, beraz, beharrezkotzat jo da Udaleko Larrialdi Plana eguneratzea, egungo premiei erantzun erreala eta eraginkorra eman diezaien. Horretarako, beharrezko antolaketa-egitura ezarri da, Erreterriako udalerrian, bere osotasunean, sor daitezkeen arrisku-egoerak behar bezala kudeatzeko.

transcurridos, se han producido numerosos cambios y modificaciones en el municipio, por lo que se ha considerado necesario actualizar el Plan de Emergencia Municipal con el fin de que éste ofrezca una respuesta real y efectiva a las necesidades actuales, estableciendo una estructura organizativa necesaria para realizar una correcta gestión de las diferentes situaciones de riesgo que se puedan originar en el municipio de Erreterria en toda su extensión.

Ondorioz, enpresa bat kontratatu da, espedienteen agertzen den Udaleko Larrialdi Plana idatzi duena.

En consecuencia, se ha contratado a una empresa, que ha redactado el Plan de Emergencia Municipal que consta en el expediente.

Udaltzaingoko Ofizialburuak aldeko txostena egin du 2021/6/2an

El Oficial Jefe de la Policía Local ha emitido informe favorable con fecha 2/6/2021.

Udal Aholkulari Juridikoak espedienteen jasotako akordio-proposamenari oniritzia eman du.

El Asesor Jurídico ha dado el visto bueno a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

### ZUZENBIDE OINARRIAK

### LEGISLACION APLICABLE

1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

Decreto Legislativo 1/2017, de 27 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Gestión de Emergencias.

407/1992 Errege Dekretua, apirilaren 24koa, Babes Zibilaren Oinarrizko Araua onartzen duena.

Real Decreto 407/1992, de 24 de abril, por el que se aprueba la Norma Básica de Protección Civil.

Trafiko eta Garraioko Zinegotzi Ordezkarriak egindako erabaki-proposamena ikusita.

Vista la propuesta de acuerdo del Concejal Delegado de Tráfico y Transportes .

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau,

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

### ERABAKIDU

### ACUERDA

Udalaren Larrialdietarako Plan eguneratua onartzea. Plan hori ONDOAN S.Coop. enpresak egin du, eta administrazio-espedienteen jasota dauden hamar dokumentuk osatzen dute.

Aprobar el Plan de Emergencia Municipal actualizado, realizado por la empresa ONDOAN S.Coop. y formado por diez documentos que constan en el expediente administrativo.



**4. Proposamena: BETI PREST DANTZA TALDEA ELKARTEA, Herriaren Onurakoak izan eta dirua irabaztea xede ez duten Elkartearen Udal Erregistroan inskribatzea. (2021IIIGE0004)**

Errenteriako Udalak, 2001eko irailaren 28an, Herriaren Onurakoak izan eta Dirua irabaztea xede ez duten elkartearen udal erregistroa arautzen duen erregelamendua onartu zuen.

2021ko ekainaren 7an MIREN GURENDA ERKIZIA HARRIETA andereak, **BETI PREST DANTZA TALDEA ELKARTEA** ordezkatzuz, aipatutako erregistroan inskribatzeko eskaera egin zuen.

Espedientean, honako dokumentazioa ageria da:

- Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailari atxikitako Euskal Autonomia, Erkidegoko elkartearen Erregistro orokorrean duten inskribapen-agiriaren frogari eguneratua.

- Elkartearen estatutuak.

- Zuzendaritzako kargudunen zerrenda.

Kultur Arduradun Teknikoak 2021ko ekainaren 17an elkartearen inskribatzearen aldeko txostena eman du.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkateak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau

**ERABAKIDU**

1.- **BETI PREST DANTZA TALDEA ELKARTEA** Udal Erregistroan inskribatzea.

**4. Inscripción de la asociación BETI PREST DANTZA TALDEA en el Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin Ánimo de Lucro. (2021IIIGE0004)**

Con fecha 28 de septiembre del 2001 el Ayuntamiento de Errenteria aprobó el Reglamento Regulador del Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin Ánimo de Lucro

Con fecha 7 de junio de 2021, MIREN GURENDA ERKIZIA HARRIETA en representación de la asociación **ASOC. BETI PREST DANTZA TALDEA** solicita la inscripción en dicho registro.

En el expediente consta la siguiente documentación:

- Certificado actualizado de inscripción de la asociación en el Registro General de Asociaciones del País Vasco adscrito al departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno.

- Estatutos de la Asociación.

- Relación de las personas que ocupan cargos directivos.

El Responsable Técnico de la subárea de Cultura con fecha 17 de junio de 2021, emite informe favorable sobre la inscripción de la citada asociación.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local por unanimidad,

**ACUERDA**

1.- Proceder a la inscripción de la asociación **ASOC. BETI PREST DANTZA TALDEA** en el Registro Municipal de Asociaciones.





2.-Honen berri interesatuari eta kontuhartzaitzari ematea Udal Araudiko 9. artikuluko ondorioak izan ditzan.

2.- Dar cuenta al interesado así como a Intervención de Fondos Municipales a efectos del artículo 9 del reglamento Municipal.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:28 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Y sin más asuntos de los que tratar, la Presidenta levanta la Sesión, siendo las 09:28 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta. La Secretaria General.

Errenteria, 2021eko uztailaren 07a

Errenteria, 07 de julio de 2021

Idazkaria / La Secretaria

Nagore Sarasola Otermin



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU3f7550a5-d14a-4c08-943f-609763bbd86b**

Dokumentu elektronikoko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
**<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>**

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>**

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2021IGOB0007-AKTA/ACTA (ERREENTERIAKO UDALA)